



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko ekainaren 7a

84. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, ekonomia-sarearen beharrianekin bat etorrira zer titulazio irakatsi beharko litzatekeen jakiteko diagnostiko bat egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroan mugikortasun jasangarrirako eta garraioa antolatzeke lege integral bat Parlamentuari igortzeari begira Nafarroako Gobernuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, aurtengo Korrikaren kariatara AEK-k argitaratu dituen unitate didaktikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, bekak direla-eta Nafarroako Unibertsitateko familiek aurkeztutako errekursoaren aurka ez egiteko asmoari buruz Gobernuaren eledunak egindako adierazpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Hezkuntza Departamentuak igorri zien gutun bat 725/2016 Ebazpeneko eskatzaileei martxoaren 8an, eta ez errekursoak aurkeztu zirenean. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Ekonomia Sozialaren Plan Integralaren (2017-2020) zehaztapen-egoerari eta hura ezartzeko egutegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak familia gurasobakarrei eskaintzen dizkien laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Jauregiaren fatxadan obra batzuk egiteko paratutako aldamiotan 2016ko irailaren 29an jarritako pankartari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak 'Buenos Aires celebra al País Vasco' ekitaldian parte hartu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, jakitekoa zer dela-eta eskatu dizkien 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Ataleko arduradunak Otik 3 urtera bitarteko eskolak dituzten udalei herriko haur-eskolan 2017-2018 ikasturterako toki bat eskatu duten pertsona guztien izen-abizenak eta posta-helbideak. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Tetra Sarearen etorkizuneko mantentzeari eta erabilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- Galdera, Kontsumo Zerbitzuaren arreta presentzialeko lineari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, etxebizitza erosteagatiko kenkari fiskalen formulak baliatzeak zerga bidezko diru-bilketan izandako eraginari eta zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, banku-entitateen hipotekaren eskritura-emateagatik ordaindutako gastuak herritarrek berreskuratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armarrak, intsigniak, plakak eta gainerako objektu edo aipamenak Nafarroako Gobernuaren Jauregitik erretiratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, ekonomia-sarearen beharrizanekin bat etorrita zer titulazio irakatsi beharko litzatekeen jakiteko diagnostiko bat egiteari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ekonomia-sarearen beharrizanekin bat etorrita zer titulazio irakatsi beharko litzatekeen jakiteko diagnostiko bat egiteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 24ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro-UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak idatziz erantzuteko 9-17/PES-00097 galdera egin zuen ekonomia-sarearen beharrizanekin bat etorri beharko lukeen titulazioen eskaintzaren plangintzarako diagnostikolari buruz. Hauxe da Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatu beharrekoa:

Esparru hau, titulazioen eskaintzaren plangintzari dagokiona, Hezkuntza Departamentuaren eginkizuna da; hori dela eta, galdera zuzentzen zaion departamentuak eginkizun osagarri bat baik ez du egiteko honetan; nolahi ere interes handiena dauka gobernu honen helburua lortzen laguntzeko, hau da, titulazioen eskaintza ahal den guztian egokitu dakiela enpresen beharrei. Eta ez hori bakarrik. Departamentu honek sustatu nahi du ikasleek titulazio horietan har dezatela prestakuntza, zeren eta haien eskaintze soila ez bailitzateke nahikoa izanen.

Horretarako, lehenengo urratsa da enpresen eskakizuna ezagutzea, bai eta S3 delakoaren bitartez planifikatutako garapen ekonomikoko erronkei erantzutea ere. Garapen Ekonomikorako

Departamentuak helburu hori lortzeko interesik handiena dauka, zeren eta prestakuntza baita politika publiko guztien oinarria, baita garapen ekonomikorako eta lurralde-garapeneko politika publikoena ere.

Hala eta guztiz ere, lantegi zaila da hori, eta egile askoren bat-egitea eskatzen du. Testuinguru horretan, lankidetzaren publiko-pribatuko gure lan-sistemak egiteko hori errazten du, eta lanerako ildoan eskaintza zabala dakar.

Lan egiteko bi esparru bereizten ditugu, titulazioen eskaintzari dagokionez: unibertsitate-titulazioak eta lanbide heziketakoak.

Diagnostiko orokorra egiteko, abiapuntutzat hartu ditugu Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enpresen beharrizanak biltzeko egin dituen azterlan partzialak. Eskualdeetako plan estrategikoei ere puntu hori jasotzen dute beren diagnostikoko dokumentuetan eta lan-ildoetan, eta beste informazio ekarpen bat izanen dira.

Unibertsitate-titulazioei dagokienez, Departamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko gradu berrien lantaldeetan parte hartu du.

Etengabea da, halaber, informazio-trukea, gobernuarena eta enpresena unibertsitate publiko-arekin, Gizarte Kontseiluaren bitartez. Unibertsitateek, halaber, enpresei buruzko lehen eskuko informazioa dute "Unibertsitatea-Enpresa" fundazioen bitartez.

Bereziki nabarmendu behar den koordinazio espazio bat Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako Zuzendaritza Batzordearena da, zeina Departamentu honek lideratzen baitu; izan ere, horretan Nafarroako hiru unibertsitateak daude. Haien ordezkariak, enprekin eta Administrazioarekin, Nafarroako ekonomiaren etorkizunari buruzko eztabaidan parte hartzen dute. Organo horretan, gure erkidegoaren espezializazioak

ezagutzen dira, bai eta sektore ekonomiko desberdinen lana, etorkizuneko errokak eta beharizan nagusiak non dauden ere. Organo horretako kidea izateak bermatzen du arduradun akademikoek parametro horien bilakaeraren jarraipena egin ahal izatea. Hortik aurrera, jakina den bezala, titulazioen diseinua departamentu eta erakunde desberdinei dagokie.

Lanbide Heziketari gehiago erreparatuta, hemendik gutxira Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoaren diagnostikoa izanen dugu. Horretarako, Hezkuntza Departamentuarekin eta Eskubide Sozialetako Departamentuarekin lan egiten ari gara.

Lanbide heziketaren esparru horren prestakuntza eskaintzak kontuan hartu behar ditu familien eta ikasleen interesak, bai eta enpresenak ere, eta ahal den guztian uztartu behar ditu. Hezkuntza Departamentuak erantzukizun sozial handiak dauzka gazteen hezkuntzari dagokionez, eta ildo horretatik arreta berezia eskaini behar die ekitatea babesteko bere betebeharrari eta kohesio eta integrazio sozialak bilatzeari; hori dela eta, ezin die uko egin erantzukizun horiei soilik Nafarroako sektore produktiboaren eta zerbitzuen sektorearen beharriari babesa ematera bideratuta egoteko.

Aurrekoa gorabehera, ongi ezagutzen du, halaber, zein eginkizun garrantzitsua duen enpresen garapena babestearen eta lanbide heziketatik ateratzen diren gazteei laneratzeko aukerarik onenak ematearen ikuspuntutik. Helburu horiek lortzeko, lanbide heziketaren eskaintzaren plangintzak oso presente dauzka prestakuntza eskaintzak etengabe gaurkotzeko aukera ematen duten beste informazio batzuk. Besteak beste, honako informazio iturri hauek erabiltzen dira:

– Egindako azterlan sektorialak; nagusiki, Enpleguaren Behatokiarenak.

– Enpresek egindako eskaerak. Haiekin etengabeko harremanetan gaude ikastetxeetako kanpoko jarduera profesionalen arduradunekin eta praktiketako tutoreekin, lantokietako prestakuntza modulan aritzen direnekin. Horretarako, erreferentzia gisa aipa daiteke 5.500 hitzarmen baino gehiago daudela indarrean lanbide heziketako ikastetxeen eta enpresen artean, eta hori prestakuntza-beharrizanei buruzko prestakuntza iturri bikaina da.

– Lanbide heziketako ikastetxeek jasotako eskaeraren azterketa. Urtero lanbide heziketako ikastetxeek matrikulazio garaian jasotako prestakuntza eskaera aztertzen da, ikasleen aldeetik dagoen prestakuntza eskaera baloratzeko.

– Laneratzeko datuei buruzko azterketa, lanbide heziketako ikastetxeek egindako erregistroetatik abiatuta. Lanbide heziketako ikastetxeek beraietatik atera diren ikasleen laneratzeko-erregistro propioak dauzkate. Informazio hori ere kontuan hartzen da plangintza egiteko garaian.

Prozedura sistematiko horiezaz gainera, harremanetan gaude enpresekin eta enpresaburuen elkarrekin, zeinek, une jakin batzuetan, eskari jakin batzuk egiten baitizkiote Lanbide Heziketako Zerbitzuari.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 12an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olazola

Galdera, Nafarroan mugikortasun jasangarrirako eta garraioa antolatzeko lege integral bat Parlamentuari igortzeari begira Nafarroako Gobernuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan mugikortasun jasangarrirako eta garraioa antolatzeko lege integral bat Parlamentuari igortzeari begira Nafarroako Gobernuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 24ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro-UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak idatziz erantzuteko 9-17/PES-00098 galdera egin zuen Nafarroan mugikortasun jasangarrirako eta garraioa antolatzeko lege integral bat Parlamentura igortzeari begira Nafarroako Gobernuak darabilen aurreikuspenari

buruz, Hauxe da Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatu beharrekoa:

Nafarroako Gobernua esparru horretan lan egiten ari da lege hori 2018an aurkezteko.

Gaur egun, Gobernua hainbat aukera eta eredu aztertzen ari da beste autonomia erkidego batzuetan, eta partida ekonomiko bat badauka aruten garatu beharreko lan teknikoei edo laguntza teknikoei estaldura emateko.

Momentuz, barne mailan lan egiten ari gara, honako hauek garatzeaz gainera: Estrategia Logistikoa, 2030era begirako Energia Plana, Klima Aldaketaren aurkako Estrategia, Iruñerriko Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana eta Hiriarterako Bidaiari Garraioaren Nafarroako Plan Integrala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko apirilaren 12an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, aurtengo Korrikaren kariatara AEK-k argitaratu dituen unitate didaktikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, aurtengo Korrikaren kariatara AEK-k argitaratu dituen unitate didaktikoei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 24ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak 9-17/PES-00099 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

1.- AEK Koordinakundeak honako hauetarako unitate didaktiko bat prestatu du:

a) Haur hezkuntzako bigarren zikloko hiru mailak.

b) Lehen hezkuntzako lehenengo bi mailak.

c) Lehen hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailak.

d) Lehen hezkuntzako azken bi mailak.

e) DBHko lau mailak.

2.- Materiala jende guztiak eskura dezake eta koordinakundearen web orrian dago. Material horrek zerikusi zuzena du Korrikarekin eta, horrenbestez, Nafarroako hizkuntza propioetako baten, euskararen, ikasketa eta erabilera sustatzearekin.

3.- A, B eta D ereduak irakasten direneko Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeak kontsultatuta, horiek adierazi digute kasu batzuetan koordinakundea haiekin harremanetan jarri dela material horren berri emateko. Beste batzuetan, irakasleek beraiek jo dute koordinakundearen web orrira.

4.- Ikastetxeek, autonomia pedagogikoaz baliatuta, –maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aitortzen du autonomia hori laugarren xedapen gehigarrian, non, halaber, xedatzen baita testuliburuak eta gainerako materialak editatzeko eta hartzeko, ez dela beharrezkoa izango hezkuntza-administrazioaren alde aurreko baimena– interesgarrien eta egokien jo dituzten atal edo atalak hautatu eta erabili dituzte ikasleekin lan egiteko.

5.- Kontseilaritza honen betebeharra da ikastetxeen autonomia errespetatzea material didaktikoak aukeratzeari dagokionez; izan ere, kasu honetan, material horiek euskara sustatzera eta erabiltzera bideratuta daude.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria eta Gobernuako eleduna: María Solana Arana

Galdera, bekak direla-eta Nafarroako Unibertsitateko familiek aurkeztutako errekurtsoren aurka ez egiteko asmoari buruz Gobernuaren eledunak egindako adierazpenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, bekak direla-eta Nafarroako Unibertsitateko familiek aurkeztutako errekurtsoren aurka ez egiteko asmoari buruz Gobernuaren eledunak egindako adierazpenei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 24ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioak 9-17/PES-00100 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentua bat dator galderan aipatzen diren Nafarroako Gobernuko eledunaren adierazpenekin. Eta bat dator zeren eta eledunak 2017ko otsailaren 22ko prentsaurrekoan egin

zuen izan baitzen gai horri buruz Departamentuak berak baloratutako jarrera adierazi.

Otsailaren 21ean ezagutu zen bekak zirela-eta Nafarroako Unibertsitateko familiek aurkeztutako errekurtsoa. 22ko prentsaurrekoaren garaian, Departamentu honek ez zuen errekurtsoa ez jasota, ez ofizialki jakinarazita ere, eta, horrenbestez, inork ezer ere ez zekien ez haren norabideari buruz, ez haren edukiari buruz ere. Albisteetan, gainera, kasazio-errekurtsio bat aipatzen zen, nahiz eta hori juridikoki ezinezkoa izan.

Hartara, bada, eta adierazpen horien arrazoari buruzko galderari erantzuteko, jakin ezazu haien arrazoa dela kautelaz jokatu beharra dagoela halako egoeretan, hain zuzen ere errekurtsoren berri albiste agentzien bitartez eta, oro har, hedabideen bitartez baizik ezagutzen ez denean.

Prensaurreko berean, eledunak aipatu zuen Gobernuak ez zuela denborarik izan errekurtsoa sakon aztertzeke eta zerbitzu juridikoek goiz hartan bertan eginen zutela iragarritako errekurtsoren azterketa eta balorazioa. Hala eta guztiz ere, azterketa hori errekurtsio organo juridikozional eskudunak jakinarazi ondoren baizik ezin zen

egin. Geroztik jakin zen errekurtsua prozeduraren etete-eskaria ezestearen aurkakoa zela.

Eledunak, horrenbestez, "probabilitate handiak daude errekurtsuaren aurka ez jartzeko" esaldiarekin helarazi nahi izan zuena izan zen Nafarroako Gobernuak hura norabide egokian ebazteko borondatea zuela, eta borondate hori, Departamentu honen iritziz, guztiz frogatu da, Nafarroako Unibertsitateko familiak ordezkatu dituzten elkarteek eta partikularrek aurkeztutako gora jotzeko errekurtsuak baietsi baitira.

Errekurtsu horiek ebazteko foru agindua, bai eta hartatik heldu den ebazpena, epaitegiak Departamentuari, aipatutako errekurtsua aurkeztu ondoren ireki den prozesuaren barruan, eskatu dion espedientean sartu dira.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 15ean

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria eta Gobernuko eleduna: María Solana Arana

Galdera, jakiteko zergatik Hezkuntza Departamentuak igorri zien gutun bat 725/2016 Ebazpeneko eskatzaileei martxoaren 8an, eta ez errekurtsuak aurkeztu zirenean.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko zergatik Hezkuntza Departamentuak igorri zien gutun bat 725/2016 Ebazpeneko eskatzaileei martxoaren 8an, eta ez errekurtsuak aurkeztu zirenean. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 24ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioak 9-17/PES-00101 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuko idazkari nagusi tekniko berriak, 2017ko otsailaren 16an jabetza hartu zuenak, egokitzat jo zuen interesdunei gutun bat bidaltzea haiei entzunaldiaren izapidean alegazioak aurkezteko erraztasunak emate aldera;

neurri hori gora jotzeko errekurtsu batzuk bazeudela zioen berria NAOKo iragarki baten bidez jakitera ematearen osagarria izan zen. Izan ere, eskatzaileak bederatzi mila baino gehiago ziren, horiek espedientean jada identifikatuta zeuden eta beraiek posta elektronikoa hautatua zuten jakinarazpenetarako bide gisa espedientetik heldutako eragin guztietarako. Gutunean, alegazioak aurkezteko epea adierazi zitzaizen, eta aurkeztutako errekurtsuen kopiak ere eman zitzaizkien (datu pertsonalak ezabatuta). Hartara, errekurtsuaren kudeaketa errazago egiten zen, bai Departamentuarentzat, bai interesdunentzat. Ezin dugu esan zergatik ez zen hori lehenago egin, zeren eta erabaki hori orduko Idazkaritza Tekniko Nagusiaren arduradunarena izan baitzen.

Bigarren galderari dagokionez, errekurtsu horietako bakar baten orrialde batean lerro bateko ohar bat agertzen da, errekurtsua aztertu zuen teknikariak hura ebazteari begira egindakoa. Gogoeta tekniko bat da, zeina, egiazki, kopiak igorri aurretik ezabatu beharrekoa baitzen.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria eta Gobernuko Eleduna: María Solana Arana

Galdera, Nafarroako Ekonomia Sozialaren Plan Integralaren (2017-2020) zehaztaperen-egoerari eta hura ezartzeko egutegiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ekonomia Sozialaren Plan Integralaren (2017-2020) zehaztaperen-egoerari eta hura ezartzeko egutegiari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 31ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak 9-17/PES-00108 ahozko galdera egin du, Nafarroako Ekonomia Sozialaren 2017-2020 Plan Integralari buruz. Honako hau da Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatu beharrekoa:

Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Ekonomia Sozialaren 2017-2020 Plan Integralaren prestaketa bultzatu da; hartan, behar diren ekintzak jasotzen dira eta eragile desberdinak koordinatzen dira, ekonomia sozialeko enpresen kezkei, beharrezan eta interesei erantzuna emateko. Enpresa horiek bilduta daude honako gisako erakunde hauetan: lan-elkartuko kooperatibak, lan-sozietateak, nekazaritzako elikagaien kooperatibak, laneratze enpresak, jarduera ekonomikoa duten fundazio eta elkarteak, ekonomia solidarioko entitateak eta enplegu-zentro bereziak.

Plana prozesu parte-hartzaile batekin taxutu da, non esku hartu baitute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio unitateek eta ekonomia soziala ordezkatzeko erakunde publiko zein pribatuak. Dokumentua jendaurrean jarri da aldi batez. Herritarren parte-hartzeak bereki ekarri ditu berrogeita hiru ekarpen, zeinetatik guztira hamahiru onartu baitira: horietatik hamaika partzialki onartu dira eta hemeretzi arrazoiak emanez baztertu dira.

Lanak eta haien izapidetze administratiboa amaituta, Nafarroako Gobernuaren 2017ko martxoaren 22ko erabakiaz azkenik Ekonomia Sozialaren 2017-2020 Plan Integrala onetsi zen.

Planaren bost ildo estrategikoei erantzuna emateko planteatzen diren berrogeita hamar jarduketara eta proiektu zehaztetatik, hogeita hiru partida ekonomiko bat dute esleituta, funtsean Diru-laguntzei buruzko Foru Legearen pean jarri diren ekonomia soziala sustatzeko ekintzak baitira. Txosten hau egiteko garaian, laguntza eta diru-laguntza gehienak edo deituta edo deitzeko prozesuan daude:

1.2.2. Bazkide langileak sartzeko ekintza planak: (Diru-laguntzarako deia eginda dago)

1.3.1. Gazteentzako enplegura bideratutako ekonomia sozialeko programa: (CEINi egindako enkarguaren barruan onetsia)

1.3.2. Ekonomia sozialeko enpresetan laneratze proiektua: (Hasita dago, CEPESekiko hitzarmena izapidetzen ari da)

1.4.2. Ekonomia sozialeko prestakuntza plana: (Diru-laguntzarako deia eginda dago eta ebatzita dago)

1.4.3. Partaidetzako lidergoa garatzea: (hasita, izapidetzen ari da)

2.1.1. Berrikuntza sozialeko unitatea: (hasita, izapidetzen ari da)

2.2.1. Erantzukizun soziala duten enpresekiko konpromisoa: (hasita, izapidetzen ari da)

2.2.2. Gizartearekiko konpromisoa kudeatzeko sistema (InnovaRSE laguntzak): (Diru-laguntzarako deia eginda dago eta ebatzita dago)

2.4.1. Sentsibilizazioa, zabalpena eta herritarren partaidetza: (zati bat deituta dago eta beste zati baterako deialdia diseinatzen ari da) (*)

3.1.1a. Sektore anitzeko ekimen berriak: sentsibilizazioa: (zati bat deituta dago eta beste zati baterako deialdia diseinatzen ari da) (*)

3.1.1b: Sektore anitzeko ekimen berriak: laguntza integral eta espezializatua: (Deituta)

3.1.2. 3.1.1.a jarduerako sektoreen garapena:
(zati bat deituta dago eta beste zati baterako deialdia diseinatzen ari da) (*)

3.1.3. Ekintzaileen kooperatiba:
(ANELEk eginda, ANELEkiko hitzarmenaren bitartez finantzatua)

3.2.1. Enpresa berri eta txikiak sendotzeko programa:
(zati bat deituta dago eta beste zati baterako deialdia diseinatzen ari da) (*)

3.2.2a. Enpresa-proiektuen hazkunderako programa.
(zati bat deituta dago eta beste zati baterako deialdia diseinatzen ari da) (*)

3.2.2b. Inbertsioak:
(Diru-laguntzarako deia eginda dago)

3.2.3. Enpresak nazioarteratzeko programa:
(zati bat deituta dago eta beste zati baterako deialdia diseinatzen ari da) (*)

3.2.4. Karbono gutxi erabiltzen duen ekonomia jasangarria:
Zenbait jarduera hasi dira, honako arlo hauetan: azpiegitura publikoetan energia berriztagarriak erabiltzea; produkzio eta eraldaketa prozesuak hobetzea eta zerbitzu ematea; baso biomasa aprobetxatzea; mendien aprobetxamendua modu antolatuta, errentagarri eta jasangarriak bultzatzea; jarduera mini hidraulikoari eta minizentral hidroelektrikoen eta haien ingurunearen berreskuratze kolektiborako proiektu integralei buruzko sensibilizazioa, kontzientziazioa eta prestakuntza.

3.3.3. Nekazaritza-elikagaien kooperatibetan sartztea:
(hasita, izapidetzen ari da)

4.1.2. Ekonomia sozialaren kudeaketa eredua:
(zati bat deituta dago eta beste zati baterako deialdia diseinatzen ari da) (*)

5.1.1. Kontabilitate sozialaren neurketa:
(Lehen fasea hasita dago. 2018an eta 2019an hurrengo faseak egingen dira)

5.2.1. Gizarteari inkesta kualitatiboa egitea:
(2017an hastekoa da)

5.3.2. Elkarteen ardaztea eta erakundeen jasangarritasuna:
(Egina. UCANEkin eta ANELEkin hitzarmenak sinatu dira)

Ekonomia soziala ikusaraztearekin lotutako beste ekintza batzuk badaude (komunikazio eta gardentasun plana), urte honen amaierarako egin nahi direnak.

2017. urteko bigarren erdialderako, aurreikusita dago planaren jarraipeneko batzorde teknikorako deia egitea, 5.4.1. ekintzaren barruan. Plan integraren gobernamentua.

Gainerako ekintzak 2018an eta 2019an hasi eta beteko dira.

(*) *“Ekonomia sozialeko enpresentzako laguntzak proiektu pilotuetarako, laguntza teknikorako eta hedapenerako” izeneko 950001 96100 4709 241203 partidak planean zehar egitekoak diren jarduketak batzuk finantzatzen ditu. 140.000 euro egiten duen diru-laguntza baterako deia egin da; horrek proposatutako ekintzen zati bat egiteko modua emanen du. Partidaren gainerakoak, 180.000 euroko kopuruak, egun diseinatzeko fasean dagoen laguntzetarako beste deialdi bat finantzatuko du.*

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak familia gurasobakarrei eskaintzen dizkien laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Domenech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eskubide Sozialetako Departamentuak familia gurasobakarrei eskaintzen dizkien laguntzei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 31ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera egin du Eskubide Sozialetako Departamentuak familia gurasobakarrei eskaintzen dizkien laguntzei buruz (9-17/PES-00109). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak informatzeko duena:

(1) Eskubide Sozialetako Departamentuak zer laguntza eskaintzen die familia gurasobakarrei adingabeek arduratzeko eta familia eta lana bateragarri egiteko, lanaldia murriztu behar izan gabe, beren lan egoera dela-eta ezin dietenean familia-gastuei ordu-murrizketaren bidez –eta, horrenbestez, soldata-murrizketaren bidez– aurre egin?

Departamentu honek bi jarduketa ildo dauzka ezarrita lana eta familia bateragarri egiten laguntzeko. Bi ildo horiek ordainketa bakarreko edo/eta aldizkako diru-laguntza ekonomikoak dira, banakako ebaluazioa eskatzen dutenak. Honako hauei zuzentzen zaizkie: 1) Hiru urtetik gorako seme-alaba bat zaintzeko eszedentzian dauden pertsonak; eta 2) egoera bereziak dituzten familia gurasobakarrak. Diru-laguntzetarako bi ildo horiek araututa daude 2016tik 2019ra bitarteko urteetarako, familiaren esparrurako zenbait laguntza emateko oinarri arautzaileak onesten dituen maiatzaren 4ko 222/2016 Foru Aginduan (2016-05-30eko 103. NAO) eta 2017. urterako behar espezifikoak dituzten familiei laguntza ekonomikoak emateko deialdia onesten duen eta horretarako gastua egiteko baimena ematen duen martxoaren 9ko 97/2017 Foru Aginduan (2017-04-03ko 65. NAO). Bi foru agindu horiek erantsi ditugu (1. eta 2. eranskinak).

Halaber, onesteko prozesuan dago etxebizitza bat eskuratzeko arazo larriak dituzten familia gurasobakarrei alokairurako laguntzak arautuko dituen foru agindua. Foru agindu horrek ezarriko ditu ordainketa bakarreko eta urte anitzeko izaerako zuzeneko laguntza ekonomikoetarako 200.000 euroko kontzesiorako deialdi publikoa arautuko duten oinarriak, banakako ebaluazioko araubidean. Laguntza horrek erraztasunak emanen dizkie etxebizitza duin batean alokairu-araubidean irauteko diru-sarrera nahikoak ez izateagatik jendepilaketako egoeran bizi diren gurasobakarreko familiei; hau da, kide guztiak etxebizitza partekatu bateko gela bakarrean elkarrekin bizitzeko beharra duen familia-unitateei.

(2) Berrikusi al duzue, (2)gutxienekoraino gaurkotuz, familia gurasobakarrentzat laster argitaratuko diren 2017ko laguntzen baremoa?

Departamentua, Hezkuntza Departamentuarekin batera (haur eskolen arduraren duen departamentua da) haur eskoletarako sarbidea arautzen duten baremoa eta tasen berrikuste eta egokitze bat egingen ari da 2017-2018 ikasturteari begira, haiek ahultasun handiagoko familia-egoerei egokitzeke; hau da, erraztasunak eman nahi dira familia amabakarretatik edo aitabakarretatik heldu diren hiru urtetik beherako adingabeek haur eskoletarako sarbidea izan dezaten. Eranskina gehitu dugu (3. eranskina).

(3) Azken deialdian zenbat pertsonak aurkeztu zuten familia gurasobakarrentzako bateragarritasun-laguntzetarako eskabidea? Eskabideen bilakaera 2014an, 2015ean eta 2016an.

Zenbat laguntza ukatu ziren deialdi horretan? Zergatik? 2014ko, 2015eko eta 2016ko bilakaera.

Zenbat laguntza eman ziren deialdi horretan? 2014ko, 2015eko eta 2016ko bilakaera.

Gure datu-baseetan bildutako informazioa oinarri hartuta, honako hau informatu behar dugu:

2014. urtea: halako laguntzarik ez zegoen.

2015. urtea: 255 pertsonak deialdian laguntzetarako eskaria aurkeztu zuten.

– 161 laguntza banatu ziren.

– 94 eskaera ezetsi ziren, honako arrazoiak tarteko.

• ⁹Guraso ahala eskusiban esleituta ez edukitzea: 48

- Lan egiten ez egotea: 16
- Heldu batekin bizitzea: 14
- Gutxienez ere lanaldiaren erdia ez edukitzea: 5
- Familia unitate bakoitzeko ezarritako diru-sarrerak gainditzea. 7
- Egoera berezietako bakarrean ez egotea: 2
- Ez egiaztatzea lana dela-eta ezarri den antzintasuna: 1
- Nafarroan bi urteko bizileku efektiboa ez izatea: 1

2016. urtean: 209 pertsonak deialdian laguntzetarako eskaria aurkeztu zuten.

- 136 laguntza banatu ziren.
- 73 eskaera ezetsi ziren, honako arrazoiak tarteko:

- Guraso ahala eskusiban esleituta ez edukitzea: 27
- Lan egiten ez egotea: 14
- Heldu batekin bizitzea: 14

• Familia unitate bakoitzeko ezarritako diru-sarrerak gainditzea. 7

- Egoera berezietako bakarrean ez egotea: 2
- Ez egiaztatzea lana dela-eta ezarri den antzintasuna: 4
- Nafarroan bi urteko bizileku efektiboa ez izatea: 2
- Ez edukitzea norberaren kargura seme-alaba adingaberik: 2
- Eskabidea epez kanpo aurkeztea: 1

(4) Zenbat familia gurasobakar dago Nafarroako Foru Komunitatean? Zein da familia horien egoera? Zenbat alargun? Zenbat ama ezkongabe? Zenbat adingabe haurdun edo ama ezkongabe? Zenbat ama, adingabe nahiz adindun, bestelako familia-egoera batean?

Galderan zehazten ez den arren, ulertzen da eskatzen diren datuek erreferentzia egiten dietela adingabeak dituzten familia gurasobakarren guneei. Horri dagokienez, Etxebizitzetako buruzko Inkesta Jarraituko mikrodatuetan oinarrituta Nafarroako Estatistika Institutuak landutako datuei begiratuta, honako hau zen adingabeak dituzten etxeen tipologia (2015. urtean):

18 urtetik beherako adingabeen etxeak, etxearen tipologiaren arabera. 2015	
18 urtetik beherako seme-alaben bat duen ama/aita	8.632
Bi kideen seme-alabak dituzten bikoteak, seme-alaba horiek haien etxean bizi direnean eta horietako bat 18 urtetik beherakoa denean.	54.789
Kide bakarreko seme-alaben bat duen bikotea, seme-alabaren bat 18 urtetik beherakoa denean.	1.619
18 urtetik beherako seme-alaben bat dituzten bikoteak eta beste pertsona batzuk:	2.837
18 urtetik beherako seme-alaben bat dituen ama/aita eta beste pertsona batzuk:	949
18 urtetik beherako adingabeak dauden beste etxe batzuk:	3.764
GUZTIRA	72.590

Datuen banantzeari dagokionez, azterlan horrek soilik ematen ditu "18 urtetik beherako seme-alaben bat duen ama/aita" kategoriako familia unitateko arduradunaren sexuaren arabera datu bananduak:

18 urtetik beherako adingabeak dituzten etxe burasobakarren kopurua, arduradunaren sexuaren eta seme-alaben kopuruaren arabera. 2015

18 urtetik beherako adingabeak dituzten etxe burasobakarren kopurua, arduradunaren sexuaren eta seme-alaben kopuruaren arabera. 2015					
	1	2	3	4	
Gizonezkoa	958	583	46	31	1.618
Emakumea	2.753	3.160	1.010	91	7.014
					8.632

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko apirilaren 24an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Nafarroako Jauregiaren fatxadan obra batzuk egiteko paratutako aldamioetan 2016ko irailaren 29an jarritako pankartari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Jauregiaren fatxadan obra batzuk egiteko paratutako aldamioetan 2016ko irailaren 29an jarritako pankartari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 31ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak idatzizko galdera egin du (9-15/PES-000110). Hauxe da Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna.

Barne zuzendari nagusiaren 2017ko apirilaren 18ko ofizioa bidaltzen dizut, zeinak Foruzaindago

buruaren txostena eransten baitu, beste txosten osagarri batzuekin. Horrekin, erantzuna ematen zaie aipatutako ekimenean egindako galderei.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko apirilaren 27an

Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: M.^a José Beaumont Aristu

Diputazioaren fatxadan pankarta bat jartzeari buruzko txostena

Nafarroako Jauregian 2016ko irailaren 29an pankarta bat jartzeari buruz Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte López jaunak egindako galdera parlamentarioen erantzuna. Dokumentu honen bitartez, erantzuna ematen zaie egindako galdera batzuei; gainerako galderen erantzunak ondotik erantsi ditugun txostenetatik ondoriozta daitezke.

Irudiak ikusita, 93. kaboaren txostena aztertuta, kaboarekin batera gertakariari erantzuna ema-

ten jardun zuen 447. foruzainarekin zenbait elkar-
rrizketa izan eta taldeburu zen inspektoreordeare-
kin hitz egin ondoren, honako hau ondorioztatu
dugu:

– Bai 93. kaboak, bai 447 foruzaina konturatu
ziren zenbait pertsona obretarako aldamiotik igo
eta jaitsi zirela irailaren 29an, 13:56an. Berehala
esku hartzea deliberatu zuten.

– 93. kaboak zen une hartan agintea zuena, eta
447. foruzainarekin batera jardun zuen. Geroztik
dibisioko buru zen inspektoreari informatu zioten.

– 93. kaboak zen Jauregiko Taldearen agintea
zuena txanda jakin horretan.

– Laugarren galdera. Kamerek hiru per-
sonaren irudiak hartu zituzten (horietatik bik peto
fluoreszenteak zeramatzen, obretan erabiltzen
direnak). Aldamioetatik igo ziren; gero, pankarta
bat ikusi zuten goitik behera jarrita fatxadako alda-
mioan.

– Obren ardura duen arkitektoak ohartarazi
zuen pertsona batzuk aldamiotik behera jaitsiak
zirela, eta Nafarroako Jauregiko atalondoan zerbi-

tzuan ari ziren foruzainei deitu ziren berehala. Une
hartan, langilerik bat ere ez zegoen aldamiotan.

– Obrak hasi aurretik, Jauregiko Taldeko burua
zen inspektoreordeak obren ardura zuen arkitek-
toa eta Construcciones Zubillaga enpresako obra-
ko burua premiatu zituen segurtasun-neurriak har-
tzera, aldamiotarako sarbidea eta haietatik gora
egitea saihesteko. Gertakari hori izan ondoren,
segurtasun neurriak hartu ziren aldamiotarako
sarbidea saihesteko, eta giltzarrapoak jarri ziren
sarrerako hesietan; halaber, xafla batzuk jarri ziren
igoera saihesteko eta giltzarrapodun teilatu modu-
ko batzuk jarri ziren aldamiotako lehenengo
pisuaren eta bigarren pisuaren arteko arrapaletan,
bidegabeko sartze gehiagorik gerta ez zedin.

– Jauregiko Taldeko 93. kaboaren txosten bat
badago gertakariari buruzkoa, PIP-290916 zenba-
kia duena. Hori guztia jakinarazten dizut horren
berri izan dezazun eta bidezko diren ondorioetara-
ko.

Iruñean, 2017ko apirilaren 18an

Nafarroako Foruzainburua: Torcuato
Muñoz Serrano

Galdera, Nafarroako Gobernuak 'Buenos Aires celebra al País Vasco' eki- taldian parte hartu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artiku-
luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin
Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galde-
raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafa-
rroako Gobernuak 'Buenos Aires celebra al País
Vasco' ekitaldian parte hartu izanari buruzkoa.
Galdera argitaratu zen 2017ko apirilaren 7ko 57.
Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamenta-
rioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán
Higuera jaunak idatzizko galdera egin du (9-
17/PES-00111). Hauxe da horri buruz Herriarreki-
ko eta Erakundeekiko Harremanetarako kon-
seilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak stand instituzional bate-
kin joan zen "Buenos Aires Celebra al País Vasco"
ekitaldira, hartara Laurak Bat Euskal Euskal E-
txearen gonbitari erantzunez. Izan ere euskal etxe
horrek 140. urteurrena betetzen du. Ekitaldia Bue-
nos Aires Hiriko Gobernuarekin batera antolatuta
zegoen.

Gobernuak arrazoi bikoitza izan zuen. Alde
batetik, Laurak Bat Euskal Etxeari erantzun positi-
bo bat eman nahi zitzaion, kontuan hartuta haren
bazkideen artean nafarren presentzia handia
dagoela: zehazki, haien % 20 inguruk nafar jato-
rria dute edo nafarren ondorengoak dira. Halaber,
presentzia instituzional batekin erantzun nahi izan
zitzaien –egia esan behar bada, erantzun apal
samarra– ekitaldian parte hartu zuten euskal e-
txeetako kide nafarrei eta, euskal etxeetakoak izan
nahi ez izan, ospakizun horrekin identifikatu ziren
edo, besterik gabe, hartara hurbildu ziren, nafar
guztiei.

Bestalde, Gobernuak Nafarroako turismoa sustatu nahi izan zuen jende ugari bildu zen ekitaldi hartan. Ekitaldia Buenos Airesko erdigunean dagoen Maiatzeko Etorbidean egiten da, Buenos Airesko gune neuralgiko bat, eta hartan 15.000 pertsona inguru egon ziren, antolatzaileen datuen arabera. Horri dagokionez, Gobernuaren standean Nafarroari buruzko argitalpen instituzionalak eta Nafarroako turismoari buruzko material inprimatua banatu ziren, bai eta zapi gorriak, pinak eta Nafarroako armarrria zuten giltzakoak ere.

Buenos Airesko Nafarren Etxeari jakinarazi zitzaion. Izan ere, jakinarazi digutenaren arabera, Buenos Airesko Nafarren Etxeko bazkideak Nafarroako standean egon ziren.

Gutzizko kostua 2.477,15 eurokoa izan zen, honako xehetasun hauekin: 1.486,77 euro: standaren diseinua + muntatzea/desmuntatzea + azafatak; 152 euro: gunea alokatzea; 221,34 euro: Erakundearen Proiekzioaren Zerbitzuak materiala bidaltzea; 617,04 euro: Turismo Zerbitzuak materiala bidaltzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 8an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Galdera, jakitekoa zer dela-eta eskatu dizkien 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Ataleko arduradunak Otik 3 urtera bitarteko eskolak dituzten udalei herriko haur-eskolan 2017-2018 ikasturterako toki bat eskatu duten pertsona guztien izen-abizenak eta posta-helbideak.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa zer dela-eta eskatu dizkien 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Ataleko arduradunak Otik 3 urtera bitarteko eskolak dituzten udalei herriko haur-eskolan 2017-2018 ikasturterako toki bat eskatu duten pertsona guztien izen-abizenak eta posta-helbideak. Galdera argitaratu zen 2017ko apirilaren 7ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioak 9-17/PES-00112 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Haur eskoletako titular guztiei haietan onartuak izateko eskaera egindako guztien izen-deiturak eta helbidea eskatu zitzaion, haiei jakinarazi ahal izateko 6/2017 Ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtsio bat bazegoela –ebazpen horren bidez

2017-2018 ikasturterako deialdia onesten da–, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 118. artikuluan ezarritakoa betetzeko; izan ere, horrek exigitzen du interesdunei errekurtsioa helaraztea, alegazioak aurkezteko eskubideaz baliatu ahal izateko.

Datuak eman zizkiguten eskatzaile guztiei prozedura eteten zuen foru agindua igorri zitzaion, bai eta aurkeztutako errekurtsioaren kopia ere, eta alegazioak aurkezteko epea adierazi zitzaion. Datuak eman ez zizkigutenei jakinarazpena egiteko eta jakinarazpena pertsonalki egiterik izan ez zirenen kasurako, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen errekurtsioa aurkeztu izanari buruzko iragarkia.

Datuak Hezkuntza Departamentuak eskatu zituen, zeren eta Idazkaritza Tekniko Nagusiari baitagokio errekurtsioa izapidetzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 23. artikuluan eta hura garatzen duen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko idazkaritza tekniko nagusiak arautzen dituen otsailaren 21eko 29/2005 Foru Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Datuak udal titularrei eskatzeari dagokionez, jokabide hori babestuta dago administrazio publiko-

en arteko printzipio orokorrean, zeina ezarrita baitago Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 141. artikuluan; izan ere, haren arabera, administrazio publikoek “norberaren eremuan laguntza eman beharko diete gainerako administrazioei, beren eskumenak modu efikazean baliatzeke eskatzen dutenean.”

Departamentuak jotzen du datu horiek lortzea, eskumen propioak bete ahal izateko, ez duela urratzen Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, zeren eta eskaera hertsiki beharrezkoak ziren

datuetara mugatu baitzen; horri dagokionez, aipa daiteke arau horrek, 1. artikuluan ezartzen duela bildutako datuak egokiak, beharrezkoak eta neurritzekoak izan direla; halaber, 6. artikuluan dio eragindakoaren adostasuna (datuen tratamendurako) ez dela beharrezkoa datu pertsonalak herri-administrazioek beren eskumenen esparruan dagozkien eginkizunak betetzeko biltzen badira.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria eta Gobernuako eleduna: María Solana Arana

Galdera, Nafarroako Tetra Sarearen etorkizuneko mantentzeari eta erabilerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Tetra Sarearen etorkizuneko mantentzeari eta erabilerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko apirilaren 7ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak idatzizko galdera egin du (9-15/PES-000113). Honako hau da Lehendakarietzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren informazioa:

Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren zuzendari nagusiaren 2017ko apirilaren 26ko txostena erantsi dizut, zein角度an aipatutako galderan eskatutakoari erantzuten baitzaio.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betetz.

Iruñean, 2017ko apirilaren 27an

Lehendakarietzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: M.^a José Beaumont Aristu

Nafarroako Gobernuak, Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, larrialdietarako sare bat badauka (Tetra sarea), beren eginkizunak garatu ahal izateko sare horren beharra duten administrazio unitateei zerbitzua emateko: Nafarroako Larrialdietako Agentzia (NLA), Suhil-tzaileak, Polizia, Anbulantziak eta abar.

Kontratatz den zerbitzuak sare nori muntatzeko beharrezkoa den ekipamenduan datza (41 oinarrizko estazio, Nafarroako lurraldean barna banatuak), bai eta haien mantentzean are, matxurei erantzuteko denborei eta emandako zerbitzuaren kalitateari dagokienez oso zorrotzak diren baldintzetan.

Zerbitzu hori ez du Nasertic enpresa publikoak kudeatzen eta Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak zuzenean lizitatu zuen 2014-2019 aldirako. Haren adjudikazio-hartzailea “Tradia Telecom SA” da, eta haren urteko kostua 611.487,5 eurokoa da (BEZik gabe). Lizitazioari, kontratuaren baldintza teknikoari eta haren kostuari buruzko datu guztiak eskura daude Nafarroako Gobernuaren kontratatu atarian:

<https://hacienda.navarra.es/sicpportal/mtoAnunciosModalidad.aspx?Cod=1309131324371B5894A7>

Kontratuaren amaiera hurbil dagoenean, Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak kasuko proiektua zabalduko du zehazteko zein den kon-

ponbiderik egokiena larrialdietarako komunikazio zerbitzu bat eduki ahal izateko. Proiektu hori, zuzendaritza nagusi honek egiten dituen gainerako guztiak bezala, honako honen arabera egingen da. merkatuan diren konponbide teknikoak aztertu eta haiek ematea, segurtasun baldintzak, kostuak eta abarrekoak. Horiek guztiak aztertu ondoren,

zerbitzua kontratatzeko modurik onena zehaztuko duen agiri teknikoa egingen da.

Iruñean, 2017ko apirilaren 26an

Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren zuzendari nagusia: Miguel Sagüés García

Galdera, Kontsumo Zerbitzuaren arreta presentzialeko lineari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kontsumo Zerbitzuaren arreta presentzialeko lineari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko apirilaren 7ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak 9-17/PES-00114 parlamentu-galdera egin du, Kontsumo Zerbitzuan zoru klausulei buruz herritarrei ematen zaien arretari buruz. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna:

1) Galdera hau jaso den unera arte artaturiko pertsonen kopurua eta eskatu baina egin gabe dauden hitzorduen:

– Apirilaren 21ean, 232 pertsona artatu dira. Data horretan, 136 dira maiatzaren amaierara arte emandako hitzorduen kopurua.

2) Auzitegitik kanpo lortutako konponbideei buruz eta konponbide horien ezaugarriei buruz eskueran dagoen informazioa:

– Nafarroako Gobernuak, oraingoz, ez du informaziorik auzitegitik kanpo lortutako konponbideei

buruz, zeren eta oraindik ere ez baita igaro finantza-entitateek herritarrei erantzuna emateko daukaten hiru hilabeteko epea. Hori alde batera utzita, Nafarroako Parlamentuak apirilaren 6ko 2/2017 Foru Legea onetsi zuen, zergadunak zoru-klausulei dagokienez babesteari buruzkoa. Hartan jasotzen da finantza-entitateek Nafarroako Foru Ogasunari ziurtagiriak igorri beharko dizkiotela epaiketaz kanpoko konponbideei edo arloko epai judizialen betearazteari edo betetzeari buruzkoak. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak konponbideei buruzko informazio jarraitua eduki beharko du.

3) Finantza entitate desberdinek herritarrekin izandako jokabidearen gaineko ezagutza-maila eta balorazioa:

– Nafarroako Gobernuak Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuak momentuz badaki herritarrak beren erreklamazioak arazorik gabe aurkezten ari direla. Finantza-entitateek ez dute erantzun uniformerik ematen. Momentuz, ezin dugu inolako baloraziorik egin erantzun orokorrari buruz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 3an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, etxebizitza erosteagatiko kenkari fiskalen formulak baliatzeak zerga bidezko diru-bilketan izandako eraginari eta zenbatekoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, etxebizitza erosteagatiko kenkari fiskalen formulak baliatzeak zerga bidezko diru-bilketan izandako eraginari eta zenbatekoei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko apirilaren 7ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroatalde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jau-

nak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (9-17/PES-00115). Galdera hori 2017ko martxoaren 30eko 1541. sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Galdera:

Nafar zergadunek 1999tik gaur arte eta urtez urte ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkariak tar-teko kendu dituzten zenbateko guztiak.

Erantzuna:

Azalpena ematen duten bi taula erantsi ditugu. Lehenengoa egindako kenkariari buruzkoa da eta bigarrena, berriz, indarrean den arauari buruzkoa.

PFEZari buruzko datu soziometrikoak
Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatiko kenkaria
Zergaldi bakoitzeko Txosten Soziometrikoa egiteko egunean dauden datu "estatikoak"

	Aitorpen kopurua	Zenbatekoa (euroak, milioitan)	Batez besteko zenbatekoa (euroak)
PFEZ/1999. 2001eko martxoko datuak	Sistematizatu gabe	65,81	
PFEZ/2000. 2002ko martxoko datuak	Sistematizatu gabe	77,62	
PFEZ/2001. 2003ko martxoko datuak	Sistematizatu gabe	86,74	
PFEZ/2002. 2004ko martxoko datuak	Sistematizatu gabe	93,42	
PFEZ/2003. 2005eko martxoko datuak	100.462	103,24	1.027,65
PFEZ/2004. 2006ko martxoko datuak	106.563	110,79	1.039,64
PFEZ/2005. 2007ko martxoko datuak	111.308	116,77	1.049,09
PFEZ/2006. 2008ko martxoko datuak	116.533	128,22	1.100,29
PFEZ/2007. 2009ko martxoko datuak	119.594	141,15	1.180,22
PFEZ/2008. 2010eko martxoko datuak	117.942	143,77	1.219,00
PFEZ/2009. 2011ko martxoko datuak	111.686	138,74	1.242,24
PFEZ/2010. 2012ko martxoko datuak	109.719	125,74	1.146,04
PFEZ/2011. 2013ko martxoko datuak	107.449	126,18	1.174,32
PFEZ/2012. 2014ko martxoko datuak	100.972	121,42	1.202,46
PFEZ/2013. 2015eko martxoko datuak	91.058	93,98	1.032,05
PFEZ/2014. 2016ko martxoko datuak	85.958	87,66	1.019,81
PFEZ/2015. 2017ko martxoko datuak	81.008	82,25	1.015,27

1. oharra: Emandako datuak ohiko etxebizitzan egindako inbertsioagatiko kenkariari dagozkio, hain zuzen ere zergaldi bakoitzeko araudiaren arabera aldiko PFEZaren aitorenpenetan "**aplikatu dena**". Kenkari hori ez dator bat kuota osoaren eta gainerako kenkariaren arabera "egiazki aprobetxatutakoarekin". "Egiatzko" kenkariak, zeina ez baitago sistematizatu ustiatze metaturako, "aplikatutakoa" baino zenbateko txikixeagoak izanzen lituzke.

2. oharra: Ematen diren datuetan "ohiko etxebizitzan egindako inbertsioaren" kontzeptu desberdinak sartzen dira, zergaldi bakoitzaren araudiaren arabera kenkariaren oinarria osatzen dutenak. Oro har, honela laburbil daitezke: **Eskuratzea eta eraikuntza. Zaharberritzea. Zabaltzea. Desgaitasunagatiko egokitze-obrak. Etxebizitzako kontua.**

ARAUDIAREN LABURPENA

Etxebizitzan egindako inbertsioagatiko kenkaria, 1999ko PFEZetik 2015eko PFEZera

	KENKARIA (%)		
	OROKORRA	Familia unitateak bi seme-alabak edo gehiagok osatua (*)	Familia unitateak Familia ugariak
1999ko PFEZa	% 15	% 15	% 15
2000ko PFEZetik 2002ko PFEZera	% 15	% 18	% 18
2003ko PFEZetik 2015eko PFEZera	% 15	% 18	% 30

(*) 2003ra arte, baldintza zen familia unitateak hiru kide baino gehiagok osatuta egotea

	KENKARIAREN EHUNEKOA, honako honekin gehitua: "Hirigintzaren eta etxebizitzaren arloko presako neurriak"		
	OROKORRA	Familia unitateak bi seme-alabak edo gehiagok osatua (*)	Familia unitateak Familia ugariak
2009-06-15etik 2011-12-31ra bitarte eskuratua (BOE, PTE, eta PME)	% 20	% 23	% 35
2009-01-01etik 2011-12-31ra bitarte zaharberritua	% 18	% 21	% 33
2009-01-01etik 2011-12-31ra bitarte zaharberritua efizientzia energetikoarekin	% 20	% 23	% 35

	KENKARIAREN OINARRIAREN muga			
	Muga (euroak) kasuko zergaldian		Muga (euroak) zergaldi guztietan	
	BANAKAKO TRIBUTAZIOA	BATERAKO TRIBUTAZIOA	BANAKAKO TRIBUTAZIOA	BATERAKO TRIBUTAZIOA
1999ko PFEZa	9.015,18	18.030,36	90.151,82	180.303,63
2000ko PFEZetik 2003ko PFEZera	9.015,18	21.035,42	90.151,82	210.354,24
2004ko PFEZetik 2011ko PFEZera	9.015,00	21.035,00	90.150,00	210.350,00
2011ko PFEZetik 2012ko PFEZera	9.015,00	21.035,00	120.000,00	240.000,00
2013ko PFEZetik 2015eko PFEZera	7.000,00	15.000,00	120.000,00	240.000,00

	ERRENTEI buruzko baldintza (euroak)	
	BANAKAKO TRIBUTAZIOA	BATERAKO TRIBUTAZIOA
1999ko PFEZetik 2013ko PFEZera	Ez dago baldintzarik	Ez dago baldintzarik
2013ko PFEZetik 2015eko PFEZera	20.000; 22.000 familia ugarientzat	40.000; 44.000 familia ugarientzat

Galdera:

Etxebizitzaren prezioaren bilakaerari buruz eskueran dauden datu portzentualak, eta ohiko etxebizitzarako 1999tik gaur arte urtez urte egindako salerosketa-eragiketaren kopurua.

Erantzuna:

Etxebizitzaren prezioaren bilakaera

HIRUHILEKOA	URTEA	URTEKO BATEZ BESTEKO OROKORRA	IPV INE ADIERAZLEAREN DATUAK			URTEKO BATEZ BESTEKOAREN BILAKAERA
			orokorra	berria	bigarren eskukoa	
2016TIV	2016	55,4255	55,610	60,907	49,198	% 1,70
2016TIII			55,776	62,220	48,998	
2016TII			55,264	61,739	48,521	
2016TI			55,052	60,881	48,525	
2015TIV	2015	54,5004	54,512	59,206	48,415	% 0,59
2015TIII			54,591	58,719	48,784	
2015TII			55,188	60,063	48,952	
2015TI			53,711	58,615	47,559	
2014TIV	2014	54,1813	53,607	56,812	48,346	% -6,48
2014TIII			53,842	59,081	47,901	
2014TII			55,09	59,393	49,356	
2014TI			54,186	57,445	48,862	
2013TIV	2013	57,9378	55,934	59,434	50,394	% -11,36
2013TIII			57,861	63,084	51,272	
2013TII			58,646	62,072	52,967	
2013TI			59,31	64,894	52,432	
2012TIV	2012	65,3605	64,418	70,992	56,677	% -14,03
2012TIII			64,974	70,844	57,889	
2012TII			65,98	70,626	60,038	
2012TI			66,07	70,442	60,387	
2011TIV	2011	76,0230	72,392	77,148	66,198	% -7,68
2011TIII			76,289	82,108	68,769	
2011TII			77,132	81,49	71,403	
2011TI			78,279	83,712	71,225	
2010TIV	2010	82,3435	81,25	85,327	75,847	% -6,29%
2010TIII			81,05	85,056	75,756	
2010TII			83,477	87,202	78,661	
2010TI			83,597	87,878	77,901	
2009TIV	2009	87,8748	86,3	91,576	79,059	% -10,00%
2009TIII			86,665	92,43	78,625	
2009TII			88,95	95,383	79,846	
2009TI			89,584	96,133	80,298	
2008TIV	2008	97,6345	94,117	100,279	85,546	% -2,37%
2008TIII			96,437	101,164	89,863	
2008TII			100,32	103,915	95,319	
2008TI			99,664	101,541	97,054	
2007TIV	2007	100,0000	99,747	101,339	97,532	
2007TIII			101,79	101,436	102,283	
2007TII			99,719	99,362	100,217	
2007TI			98,744	97,863	99,968	

Salerosketan dauden
etxebizitzaren kopurua

Urtea	Etxebizitza- kopurua
2005	9.849
2006	11.782
2007	9.729
2008	7.257
2009	6.476
2010	5.861
2011	4.479
2012	3.767
2013	4.479
2014	4.999
2015	4.014
2016	4.538

Argitasun batzuk:

- PFEZaren eraginetarako, ezin da bereizi ohiko etxebizitzak diren.
- Datuak bidaltzen dira soilik salerosketa eragiketak badira. Ez dira jasotzen bestelako titulu juridikoen bidezko eskualdatzeak.
- 2005a baino lehenagoko urteei buruz lortutako datua ez da guztiz fidagarria, zeren eta ez baitzen grabatzen likidaziora aurkeztutako dokumentu guzti-guztien edukia.

Galdera

Ohiko etxebizitza erosteko kenkari fiskalek etxebizitzaren prezioan izandako eraginari buruz eskueran dauden azterlanak eta txostenak bidaltzea eskatzen du.

Erantzuna

Eskatutakoen moduko txosten edo azterlanik ez dago. Ez dugu ezagutzen etxebizitza erostea-

gatiako kenkariak etxebizitzaren prezioan duten eragina zuzenean aztertzen duen txostenik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, banku-entitateen hipotekaren eskritura-emateagatik ordainduta-ko gastuak herritarrek berreskuratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, banku-entitateen hipotekaren eskritura-emateagatik ordainduta-ko gastuak herritarrek berreskuratzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko apirilaren 7ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak 9-17/PES-00116 parlamentu-galdera egin du, hipoteken eskriturengatik kobratutako gastuak direla-eta herritarrei emandako arretari buruz. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna:

1) Gastu horiek berreskuratze prozesuan herritarrak artatze aldera Nafarroako Gobernuak bideratu dituen tresnak:

– Nafarroako Gobernuak herritarrei zoru-klausulak direla-eta arreta emateko bideratutako tresna bera da. Zoru klausulak direla-eta Kontsumo Zerbitzura doazen aldi berean, informazioa eskatzen dute gastuen itzulketari buruz.

Auzitegi Gorenaren epaiaren indarrez, gastuak berreskuratze bidea irekitzen baitu, herritarrek

finantza-entitateei erreklamatu behar dizkiete beraien ustez itzuli behar dizkieten gastuak.

2) Galdera hau jaso den unera arte artaturiko pertsonen kopurua eta eskatu baina egin gabe dauden hitzorduen:

– Apirilaren 21ean, 232 pertsona artatu dira, eta maiatzaren amaierara arte emandako hitzorduak 136 dira.

3) Auzitegitik kanpo lortutako konponbideei buruz eta konponbide horien ezaugarriei buruz eskueran dagoen informazioa:

– Nafarroako Gobernuak ez du informaziorik auzitegietatik kanpo lortu diren konponbideei buruz. Finantza-entitateek ez dute zertan herritarrei erantzun edo informazioa eman, zoru-klausulei buruz ez bezala.

4) Finantza entitate desberdinek herritarrekin izandako jokabidearen gaineko ezagutza-maila eta balorazioa:

– Nafarroako Gobernuak momentuz ez daki zein den herritarren eskaeren aurrean finantza entitateek eman duten erantzuna, horrenbestez, ezin du inolako baloraziorik egin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 3an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armarrak, intsigniak, plakak eta gainerako objektu edo aipamenak Nafarroako Gobernuaren Jauregitik erretiratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Lucía Pérez Ruano andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armarrak, intsigniak, plakak eta gainerako objektu edo aipamenak Nafarroako Gobernuaren Jauregitik erretiratzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko apirilaren 12ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak idatzizko galdera egin du (9-17/PES-00117). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Gobernu honek ikur frankistak kentzeko duen konpromisoa irmoa eta argia da. Izan ere, Nafarroako Jauregian zeuden ikur frankista batzuk jada erretiratu egin dira. Hartara, honako hauek aipa daitezke: Areto Isabelarrean zegoen alfonbra bat, armari erramudunak zeuzkana; Nafarroako Jauregiko kaperako aulkietako Nafarroako armari erramudunak, eta kapera berean zegoen Aralarko San Migelen irudi bateko armari erramuduna.

Baina, zalantzarik gabe, elementu adierazgarriena, bere sinbolismoagatik eta betetzen zuen tokiagatik, Nafarroako Jauregiko frontoian kokatutako Fructuoso Ordunaren eskulturaren ageri zen San Fernandoren gurutze erramuduna izan da, 2016ko udazkenean kendu zena.

Bestetik, Nafarroako Gobernuak memoria historikoaren arloko lehentasun baten gisara ezarri zuen ikurren errolda egitea, hain zuzen 33/2013 Foru Legeak ezartzen duena.

Pérez andreak ongi dakien bezala, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko

azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeak, II. tituluan, administrazio publikoen eta entitate pribatuen betebeharrak ezartzen ditu, sinbolo, idazkun eta aipamen frankistak kentzeari dagokionez, eta sari, izendapen, titulu eta ohore instituzionalen baliogabetzeari dagokionez:

10. artikulua. Sinbolo, idazkun eta aipamen frankisten errolda.

Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak sinbolo, idazkun eta aipamen frankistei buruzko errolda bat eginen du, eta Nafarroako Gobernuari aurkeztuko dio.

11. artikulua. Sinbolo, idazkun eta aipamen frankistak kentzea.

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenez baliatuz, behar diren neurriak hartuko ditu altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armarrak, intsigniak, plakak eta gainerako objektu edo aipamenak kentzeko. Neurri horien artean, diru-laguntzak edo laguntza publikoak kentzea ere sartu ahalko da.

12. artikulua. Sari, izendapen, titulu eta ohore instituzionalen baliogabetzea.

Nafarroako administrazio publikoek, foru lege hau argitaratu eta urtebeteko epean, berraztertu eta baliogabetu eginen dituzte erregimen frankistarekin zerikusia izandako pertsonen jasotako sariak, izendapenak, ohorezko tituluak eta gainerako gorapamenak, eta, urtebeteko epe horretan, behar diren zuzemenak egiten dituzte aurreko horiei buruzko ziurtagiriak egiteko. Ziurtagiri horiek publiko egiten dituzte administrazio desberdinek, eta Espainiako Gobernuari igorriko dizkiete.

Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak, 2016ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, ikur frankisten errolda onetsi zuen, bai eta ikur horiek kentzeari buruzko gomendioak ere, eta Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren esku utzi zuen hura Nafarroako Gobernuari aurkezteara.

Nafarroako Gobernuak, 2016ko azaroaren 30eko erabakiaz, ikur frankisten behin-behineko

eroldaren jakinaren gainean zegoela adierazi zuen eta hura berretsi zuen, eta onartu egin zituen ikur horiek kentzeko gomendioak, Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak onetsiak. Era berean, erabaki zen Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusiaren esku uztea berretsitako behin-behineko erroldea gaurkotuta edukitzeko behar diren jarduketa eta proposamen guztiak egitea, bai eta jada onetsi diren ikur frankistak kentzeko gomendioak gauzatzea ere. Nafarroako Gobernuaren azaroaren 30eko Erabakia 2017ko urtarrilaren 13ko 9. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Pérez andrearen galderan aipatzen den koadroari dagokionez, Tomás Domínguez Arévalo, Rodezno Kondea, da Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak onetsi eta Gobernuaren Erabakiaz berretsi den ikurren behin-behineko erroldan ageri diren izenetako bat. Erroldarekin batera ikurak erretiratzeko ageri diren gomendioen artean dago seme kutunak eta adopziozko semeak izendatzeko erabakiak atzera botatzea dago, bai eta kale-izendegietatik eta bestelako eremu publikoetatik (kirolaren, kulturaren edo hezkuntzaren arloetan) izenak erretiratzea ere. Bata eta bestea, agerikoa denez, erregimen frankistan eginkizun garrantzitsua eta esangura-

tsua jokatu zuen pertsona jakin baten goraiipamen-ekintzak dira. Hori dela eta, erroldak, legea betez, izendapen eta ohore horiek erretiratzeko neurriak proposatzen ditu.

Hala eta guztiz ere, Pérez andreak egindako galderari dagokionez, Lehendakarien Aretoan Tomás Domínguez Arévaloren koadro bat egotea, Nafarroako Foru Diputazioko lehendakariorde gisa, ez da inolako goraiipamen pertsonal zein kolektiboa, zeren eta kokatuta dagoen testuinguru horrek jasota utzi nahi baitu zein izan diren Nafarroako lehendakariak, ez goraiipamen, ez ohorerik gabe, datu historiko baten konstatazio hutsa eginez.

Horixe izan zen 1940 eta 1949 bitartean Nafarroako Foru Diputazioko lehendakariorde izan zen Tomás Domínguez Arévaloren koadroa kentzea Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak onetsitako sinbolo, idazkun eta aipamen frankisten erroldan ez jasotzeko arrazoia.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 9an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde